

# HERNANIK kronika

2003 urtea  
Abuztuak 25  
Astelehena  
Alea: 859  
[www.kronika.net](http://www.kronika.net)

## 20 urte Hernani ibai bihurtu zela

■ Biharko egunarekin beteko dira 20 urte Hernani uholdeengatik lurralteko katastrofiko izendatu zutela ■ Fagollaga eta Ereñotzu isolatuta geratu ziren eta Portu eta Karabelen ura 80 cm-tara iritsi zen ■ Portun bizi direnek diote 1953ko urrian izan zela Hernaniko uholderik haundieta.

DUELA 20 urte, 1983ko abuztuaren 26an Hernani urez gainezka esnatu zen. Hernaniarrek ez zuten 1953tik horrelako uholderik ezagutu. Uholde hainak sortutako txikizioa zela eta Hernani, Euskadiko beste herri asko bezalaxe, lurralteko 'katastrofiko' izendatu zuen gobernu zentralak. Donostialdean egin zen lehen balorazioan garai hartako 1000 milioi pezetako galera materialak kalkulatu ziren. Hernaniarrek benetan larritu zituen uholde hark.

**150 litro m<sup>2</sup>-ko**  
Hernaniko Udal Artxiboa jasotako datuen arabera, euri erasoa abuztuaren 25etik 26ra-ko gauean izan zen aurreneko eta 26 goizerako lasaitu egin zen. Abuztuaren 26ko arratsaldeko azkeneko orduetan hasi zen berriro ere euria gogor eta ez zuen gelditu 27ko arratsaldera arte. Jaso ziren datuen arabera 15-18 ordutan media 150 litro bota zituen m<sup>2</sup>-ko, eta Ereñotzuko Estazioak erre-karen ur-erorría 975 m<sup>3</sup>/seg.-koia zela jaso zuen.



1983garren urteko uholdeetan Karabelek irla baten itxura hartu zuen. (Argazkia: Hernaniko Udal Artxiboa utzia)

**Eragindako kalteak**  
Uholdeak benetan larritu zuen jendea. Ereñotzu egun batzuetarako isolatuta geratu zen, errepidean lur-jausiak izan zirelako. Fagollagarako errepida-

dea moztuta geratu zen erre-kak gainezka egin zuelako. Portu eta Karabelen egoera oso kezkagarria zen, ura 80 cm-tara iritsi baitzen. Karabeleko hainbat bizilagunek pentsatu zuen etxeak erori egingo zirela. Portun egoera horretara ohituago zeudenez, bizilagunak elkartu eta nola edo ahala egoerari aurre egiten saiatu ziren. Eziago Poligonoa ere ura erruz iritsi zen, eta errekatik hurbil dagoenez poligonoko bajuak urak estali zituen.

Donostialdean garai hartako 1000 milioi pezetako galerak kalkulatu ziren eta horietatik 800 milioi industriarekin lotutakoak izan ziren. Industriarekin batera kaltetutakoak izan ziren, etxebizitzak, nekazaritza, instalazio publikoak, kirol instalazioak, ondasun ekologikoak, eta abar. Zorionez Hernanin uholdeak ez

zuen hildakorik utzi, baina uholde hark 70 heriotza eragin zituen Euskal Herrian.

### Ura kutsatuta

Uholde hark industrialdeetan zeuden bidoiak ere aurretik eraman zituen eta bidoi horiek sustantzia toxikoak zituzten: oliaoak, petrolioak, zianuroa eta kobaltoa aurkitu zituzten uretan. Bestalde, Goizuetako minetatik beruna eta zink asko eraman zuen urak. Ondorioz ura ezin zen edan eta udara hartan hondartzak itxi zituzten bakteria mordoa aurkitu zute-lako uretan.


### Lehenago ere bai

Hernanin lehenago ere gertatu dira uholdeak. 1562an, itsasontziak Portu auzoan nabigatzentz iku zitezkeen garai haritan, urak gainezka egin omen zuen. 1895eko ekainaren hasieran gertatu zen beste uholde

bat eta Portu, Karabel eta Martindegiko auzoko baratzak hartu zituen urak. 1947koan izan zen geratu den uholde xelbrenea. Goizuetan "dilubioa" zela pentsatu omen zuten baina, Hernanin ez zuen euri tantorik bota. Hala ere, erreka atera egin zen Hernanin.

1983ko baino lehenago, 1953ko urriaren 14an gertatu zen gogoratzen den uholde haundieta. Manuel Borja Garmendiak "Prantxesak" Hernaniko tranbia zaharrean egiten zuen lana eta uholde hora gogoratuz dio: "Martutenen urak tranbia hartu eta kanteraraino eraman zuen". Bere hitzeten hora izan da Hernanin gertatutako uholderik haundieta.

Hernanin gertatu diren azken uholdeak izan dira: 1992an, 1997an eta 2002an. Aurretan ere izan da beste bat, eta haren eraginez Landare eta Zubipe urez bete ziren. □



Antonio Erdozia, Patas, 1953ko uholdeetan ura noraino iritsi zen adierazten duen markarekin, Portu ondoan dagoen Pagolan.

[www.kronika.net](http://www.kronika.net)  
**kronika**  
Interneten helbide  
berrian

**Allianz**   
ASEGURUA  
Agustin Ezponda  
AGENTZIA  
Telf.: 943 557 326  
656 735 109

**AMEGAR**  
Etxe tresnak  
Altzariak  
  
Elektrogailuak  
TB- Bideoak-  
HI-FI-Opariak  
Sukalde altzariak  
Tel.: 943 55 11 25  
Faxa: 943 55 16 30

**ETXE ONENAK, S.A.**  
  
GARAJE ITXIAK  
"OBLATOS" ETAN  
SALGAI  
Informatu eta saldu:  
943 33.22.37

**DORRONSORO**  
  
OKINDEGIA  
J.Dorronsoro Okindegia, S.L  
Lizeaga, 7 943 33 36 18 -20120 HERNANI

Bertan egindako  
kalitatezko ogia



Sagardo Txapelketak jende izugarri bildu zuen atzo Ergobira, eta eguraldiak ere lagundu zuen.

## Herri kirolak goiz eta arratsalde eta bazkaria gaur Ergobiko jaietan

■ Bihar idi-probak eta urteroko antzerki herrikoia ■ Atzo jende asko bildu zuen Sagardo Txapelketak ■ Larunbateko Txirrindulari Proban Iñaki Jimenez irabazole.

ERGOBIKO jaiak hirugarren eguna dute gaur. Eguerdiko 12:00etan idi-probak izango dira, ondoren bazkari ofiziala, eta arratsaldean bertsolariak, zaldi-probak, harri-jasotzaileak eta aizkolariak. Bihar ere idi-probak izango dira eguerdian eta gaurko idiek egindako plazak kontuan hartuko dira. Bihar eguerdian bazkari herrikoia dute. Arratsaldean, umeentzako ipui magikoak 18:30etan; eta gauean urteroko antzerki herrikoia, aurten ma-

rrazki bizidun bihurtuta.

### Sagardo Txapelketa

Sagardo Txapelketak atzo ere jendetza izugarria bildu zuen Ergobin. Plazara inguratzen aukera izan zuen sagardoa probatu, pintxoja jan eta gustokoaren botua emateko. Txapelketa Lizeaga sagardotegiak irabazi zuen; bigarren Barkaiztegi eta hirugarrena Bereziartua. Sari berezia Manu Iraolak eraman zuen, epaileen era-bakiarekin gehienak koinziditu

zuena izan zelako.

### Larunbatean Jimenez onena

Larunbatean jokatu zen Ergobiako Txirrindulari Saria. Bernardo Arzallus zenaren omenezko memoriala izan zen eta karrera Iñaki Jimenezek irabazi zuen. Bigarren Aitor Agirre izan zen eta hirugarren Andoni Urteaga. Mendiko saria Aitor Agirrek eraman zuen; tarteko helmugen saria Arkaitz Hernandezek eta taldeka onena Oriako izan zen. □

## ■ CLUB DEPORTIVO HERNANI



Juan Bautista Biurrarena eta Ricardo Ramos, joan den urteko Asamblean.

## CD Hernanik urteko Asamblea asteazkenean

■ Bazkideen kuota igoera da Batzarreko gaietako bat ■ Batzarra 19:30etan da.

CD Hernanik urteko Batzarra egingo du datorren asteazkenean, Sandiusterrin. Hitz egin beharreko gaiak honakoak dira: kirol taldeen ekintzei buruzko memoria; 2002/03 den-

boraldiko balorazio ekonomiko; bazkideen kuota igoera; eta 2003/04 denboraldiko aurrekontua. Ondoren galdera eta eskariak egiteko aukera izango dute inguratzen diren

bazkideek. CDHk 500 bazkide inguru dauzka eta denak daude Asambleara deituta. Asamblea datorren asteazkenean da, 19:30etan Sandiusterrri aretoan. □

## ■ ERREMONTEA - CASINO KURSAAL

## Ezkurra eta Eizagirre bihar buruz buru Galarretan

■ Ligilako bigarren partidua izango da, 17:00etan.

CASINO Kursaaleko ligilako bigarren partidua jokatuko da bihar arratsaldean Galarretan. Aurrez aurre, Koteto Ezkurra

txapelduna eta Jon Eizagirre, aurten ere txapelketa latza egiten ari dena. Eizagirrek ligilako partidu bat irabazia du. □

## ■ FUTBOLA

## Hernanik Realaren kontra jokatuko du bihar Labaien Torneoko finala, Zubipen

■ Labaien Torneo Jubenil mailako taldeek jokatzen dute eta 19:00etan da finala.

AURTEN 31garren Labaien Torneo jokatuko da eta Hernanik finala jokatuko du bihar arratsaldean Realaren kontra. Labaien Torneo jubeniletan 4 ekipo jokatzen dute. Aurten Reala, Añorga eta Lehengokoak izan dira Hernanirekin batera. Joan den astean izan ziren kanporaketa partiduak.

Hernani finalean sartu zen Lehengokoak 3-1 mendean hartuta. Realak, berriz, 4-1 irabazi zuten Añorgaren kontra.

Bihar arratsaldean, aurrena Añorgak eta Lehengokoak jokatuko dute 3-4 garren postua erabakitzeko partidua, 17:00etan. Eta, 19:00etan finala: Hernani-Reala. □

## ■ XAKEA

## Xake Elkartea bilera du gaur denboraldia prestatzeko

■ Elkartea gazteei deialdi berezia egin die bilerara joateko ■ Bilera Aristizabal kalea 5ean da, 20:00etan.

XAKE Elkartea bilera deitu du gaur arratsalderako denboraldi berriroko dituen asmoak azaldu eta martxan jartzeko. Aurtengo helburu nagusia da xakea gazteetara zabaltzea, eta era berean Gipuzkoako

Ligan bi talde ateratzea. Horretaz gain, badira xake ikastaroak, xakea Eskola Kirolaren sartzeko asmoa eta abar. Helburu horiek aurrera eramateko egingo dute gaur arratsaldean bilera. □

## Herri barruko autobusa gaur jarriko da martxan berriz

■ Oporretako etenaldiaren ondoren, autobus zerbitzua gaur jarriko da berriz martxan.

### IRAGARKI MERKEAK

Hernanin ogi banatzilea behar da. ☎: 609 543900 (19:00etatik 20:00etara).

Pertsona bat behar da exeko lanak egin eta umeak zaintzeko, 10:00etatik 13:30etara. ☎: 667 019274.

Gela bat alokatzen da, bulegoko lanak, klase partikularak edota masajeak emateko. Zentroan. Interesuek deitu: ☎: 943 55 29 47 - 943 55 46 97

### ZERBITZUAK

#### + FARMAZIAK

##### ■ TELEFONOAK

###### ■ Taxiak:

943 550093

###### ■ Udalzaingoa:

943 333288

###### ■ DYA:

943 464622

###### ■ Anbulutorioa:

943 006666

###### ■ Jokalari anonimoak:

943 331103

##### ■ ASTELEHENIA

###### ■ Egunez: Chucla

Kardaberaz 48

☎ 943 551793

###### ■ Gauez: Iturrealde

Usurbil. Poligono 13, 9

☎ 943 363395

##### ■ ASTEARTEA

###### ■ Egunez: Correa

Perkaiztegi 8

☎ 943 551933

###### ■ Gauez: Oa

Usurbil. Poligono 1, 1

☎ 943 376076